

Noaua!!

www.noaua.com



Jai giroan da Aginaga



Etioopiara ailegatu da
Usurbilgo elkartasun keinua

I CODE
BY IKKS



MAHUKA
arropa denda

etxebeste 3 ☎ 943 361 106

saltxipi 
jaketxea



Betiko janaria, zatoz Donostira!

Ategorrietako gaitzarra zaharra, 3
20.013 Donostia
Telefonoa 943.323.310
www.saltxipi.com




frutadenda

Ordutegia: 8:30tik 13:30ra eta 17:00etatik 20:00tara, Larunbata: 8:30tik 13:00ra
Barrenkale 8, (Udaletxe ondoan) 943 111 977 f.txalako@gmail.com

**Zenbat kostako
zaigu erraustegia?**

83 milioi €
edo 13.845 milioi pezeta
eraikitzeko inbertsioa
+
Urteroko mantenimentua:
7 milioi €
edo 1.166 milioi pezeta

**ERRAUSKETARIK EZ
LURRIA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK**

Osasun-tekniko batzordea

*Iturria: San Markosko
Mankomunitatearen Hiri
Hondakinei buruzko Plan
Integrala 2002-2016.




Albistea iruditan !

Urriaren 12an, euskal jaia Zubietan

Urriaren 12an, Euskal Jaia ospatuko dute Zubietan. Goizez, errebote partida, haurrentzat ekitaldiak eta kantu-poteoa antolatu dute. Herri bazkaria, ordea, Araeta jatetxean egingo da. Txartelak Barazarren jarri dira salgai. Baina kontuan izan bazkarirako **txartela erosteko azken eguna** igande hau izango dela, **urriak 4**. Txartela, helduentzat, 20 euro eta umeentzat 12 euro. Helduentzako menua hau da: aperitiboa; odolki-gutizia, aza, perretxiko, foie eta muturrekin; bakailao-hostopila, ajoarriero eta barazkiekin; txerri izter errea, sagar saltsarekin; menbrilo-flana, Idiazabal izozkiarekin. Ardoa edo sagardoa, ura eta kafea. Eta umeentzako, berriz, haxe: aperitiboa, frijituak, oilasko errea patatekin, esne-gain eta txokolatzeko tarta.



ARGAZKIAN, IAZKO EUSKAL JAIA. HERRI BAZKARIRAKO TXARTELAK ALDEZ AURRETIK EROSI BEHAR DIRA URRIAREN 4A BAINO LEHEN. BARAZARREN DAUDE SALGAI.

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaiberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com
 Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan


Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com
 Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
 Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com
 Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com
 Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.
 Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.
 Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.
 Tirada: 2.800 ale
 Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

ETIOPIATIK BUELTAN	6. OR.
BERDINTASUNERAKO PLANA	8. OR.
AGINAGAKO OILASKO BILTZAILEAK	9. OR.
HOTZIKARA TALDEAREKIN SOLASEAN	10. OR.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Solariuma L'ORÉAL PROFESSIONNEL

Iñoli Lizarralde

• Ilkapaindegia • Estetika Zentroa

Zubiaurrenea, 5-B ☎943 361 971

txirriStra

KONTSEJUZZARRA 13
 943 360 466

pintxoak
 ogitartekoak
 plater konbinatuak

TABERNA



MAIALEN UNANUE

Salda bero-beroa

Graba dezagun azken minutura arte A gripez hiltzen ari den norbait; errege txit gorenaren familia gaixoak krisiaren ondorioz izan dituen opor pobreen irudia hartuko dugu; langileen protestak ere enfokatuko ditugu, gainera datorkizuen nolakoa izango den ikus dezazuen. Nahas dezagun guztia eta jarrai dezagun diskurtso berarekin pare bat hilabetez.

Bota diezaiogun gatz pixka bat: poliziaren irudiak ere gehituko dizkiegu, azkenaldian euskal parajeetan duten mugimendurekin inoiz baino gehiago lan egiten baitute. Haien borondate eta zerbitzu ona justifikatuko dugu irudi eder batzuekin, non erradikal ero batzuek probokatuta, istiluak sortu diren. Bost segunduko bideo bat izanen da, non ez dizugun erakutsiko haiek iritsi aurretik manifestazioaren giro baketsua. Zertarako? Horrek asperdura sortzen du. Bide batez, eskubideak aldarrikatzea zein gauza arriskutsua izan daitekeen irudikatuko dugu, noizbait horrelako zerbait bururatzen bazaizu ere.

Beldurtuta zaude, ezta? Badakit, bai. Nire ere egongo

nintzatekeen. Ez larritu, ni zu banintz, ez nintzateke etxetik aterako. Gera zaitez telebistari begira eta ikus ezazu munduan zenbat desgrazia, gose, tiroketa eta delinkuentzia dagoen. Nik beti izango dut soldata finko bat, nire bizkarrara ongi babestuko duen polizia, A gripearen aurkako txertoa zuzenean hartzeko aukera eta opor eder batzuk izateko adina diru eta denbora.

Ez da oso zaila jendea engainatzea. Ez, behintzat, komunikabideetako mikrofonoetatik entzuten den ahotsa zurea soilik denean. Astakeria bat diozula? Ez dio axola, zuri begira dauden horiek men egingo dizute eta. Hedabideek ez diote inori gehiago kasurik egingo. Beno, oposizioa beti dago hor, baina polita da, ezta? Badirudi benetan badutela zer eginik.

Zein dibertigarria den agintaria izatea! Ederra da zernahi egin eta gainera legearen izenean jardutea. Ahoa ireki orduko komunikabide guztiek nire hitzak hasieratik bukaeraraino errepikatzeak sentsazio gozo eta lasaigarria sortzen du. Zertarako arduratu nik esandakoak zalantzak jartzen ez badira?

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika !!

Elkarriketarako eskubidea! (II)

Askotan bi aldeek egia esan dezaket, beraz bi iritziak dira benetakoak, baina desadostasunak dauzkate.

Zuzendaritzaren erabakiak hartzeko moduarekin, ados ez egon arren, jubenil mutilen taldea zuzentzeko hutsunerik sortuz gero, prest nengoen ardura hori hartzeko. "Hi izatea denontzako egokiena izango huke. Hitz egingo diagu!" esan bai baina hori ez da gertatu, zaila baita hain beharrezkoa eta oinarritzakoa den komunikazioa; baina erabakia bai, hartu egin da.

Dena den, nire helburua ez da behin ere izan, gai nagusia ni izatea. Hona hemen berri izenburua,

"Elkarriketarako eskubidea!", hau da eta, nire ustez arazoaren mamia:

1) Pertsonal arazoak daudenean, erabakiak hartu baino lehen, bi aldeak entzun behar dira, iritzi guztiak dira zilegi eta.

2) Nire kasuan ere "Aurten jai", nork proposatu zuen galdetu nuenean, "Direktibaren erabakia izan da!" esan zidaten eta kito. Elkarriketarik ez.

3) Jubenil mutilei lazko entrenatzailerak aurten ez zirela jarriko esan zitzaion. lazko bat zela jakin zutenean, ez zutela bera izatea nahi jakinarazi zioten. Elkarriketarik ez.

Harritzekoa al da baten batzuk gal-

detzen badute "Nola da posible zuzendaritzak Jota bezalako pertsona bat Klubetik bidaltzea?"

Pena dut, ez dut ukatuko. Eskubaloiak Usurbilen asko eman dit, ibili horretan asko jaso dut, baina tristea horrela bukatu behar izana. Pertsonok arrazoitzeko eta hitz egiteko gaitasuna omen dugun arren, zein gutxi baliatzen dugun! Pentsa, egindako lanagatik eskerak ere, paperean Noaua!n eman dizkirate, ez aurrez aurre, gure herri txiki honetan ia egunero kalean topo egin arren. Pena bat, zer egingo dugu ba...

Jon Gallego (Jota)

BTK eta Mendeku ItXua, igandean Kilometroak jaialdian

Urriaren 4an Donostian ospatuko den Kilometroak jaialdian herriko bi talde hauek parte hartuko dute: BTK batukada taldeak eta Mendeku ItXua musika taldeak. Azken hauek ibilbideko bigarren gunean eskainiko dute kontzertua, 16:00etatik aurrera.

Bestela, sei gune izango ditu Grosen inguruko ibilbideak eta horietako bakoitzean denetariko ekitaldiak izango dira. Musika eskaintza zabala, haur ikuskizunak, Mikel Laboari omenaldia... Goizeko 9:30ean zirkuitua irekitzen den unetik hasi eta iluntzera arte.

Donostiara joateko EuskoTrenak



BTK TALDEKOAK KALEJIRAN IBILIKO DIRA IGANDEAN DONOSTIAN.

indartu egingo ditu urriko lehen igandeko joan-etorri zerbitzuak; trenak ordu erdiro pasako dira Usurbildik hiriburura eta ordu erdiro irtengo dira Donostiatik. Grosen kokatua dagoen Zurriola ikastolarentzat jaso nahi da laguntza.

Kantu Taldearen bilera

Usurbilgo Kantu Taldea martxan dugu berriz ere. Urriaren 1ean, ostegunarekin, Udarregi Ikastolan biltzeko deialdia egin dute. 19:30ean hasiko den bilera hori irekia da, beraz, lehen aldiz Kantu Taldera bildu nahi

dutenek ateak zabalik dituzte. Urriaren 3an Gernikan egingo den topaketan izango da Usurbilgo Kantu Taldea.

Bidaiaren xehetasunak ostegun honetako bileran emango dira.

Txerriki taldearen entseguak, larunbatero

Lehen Topa Eszenika igaro eta Amorebietan kale animazioa egin ondoren, ikasturte berriari ekin diote Txerriki antzerki taldekoek. Entsegu egunak zehaztuak dituzte jada. Larunbatero bilduko dira, goizeko hamaiketatik aurrera Etxealdiako lokalean.

Zumartek logotipo lehiaketa antolatu du

25. urteurrena dela eta, logotipo lehiaketa antolatu dute Musika Eskolako ikasleen artean. Baldintzak hauek dira:

- "Zumarte Musika Eskola 25 urte" testua agertu behar du.
 - Parte hartzeko Musika Eskolan matrikulatuta egon behar da.
 - Saria: hurrengo urteko matrikula eta hileko kuotak doan.
 - Epea: urriak 23 (egun hau barne).
 - Lan originalak sobre baten barruan sartuta Zumarteko bulegoan entregatuko dira astearte, ostegun edo ostiral arratsaldetan.
- Datu gehiago: 943 371 594.

Ika-mika !

Denok ezagutzen dugun enpresa honetan, azken aste hauetan gertaturikoaren larritasunaren aurrean herrian jakinaraztea erabaki dugu bertako langileok.

Bertako langileok egoera prekario batean lan egiten dugu eta gure lan baldintzak hobetzeko asmoz izandako elkarriketak, patroien ganako harrema-

nak asko tenkatu ditu. Gure jarrera beti izan da elkarriketaren aldekoa.

Egoera honetan, bertako patroiek denboraldirako kontratatutako langile bat kaleratu dute, jarrera guztiz autoritario eta txuloan eta gainontzekoak mehatxatu asmoz.

Langileok gure aldarrikapenekin jarraituko dugu:

- Despidorik ez!!
- 9 hilabeteko lana urte osokoa izatea.
- Gure lan hitzarmena Gipuzkoako jakien industriakoa izatea eta ez Espaniako barazki kontserbena.
- Langileok, lana behar dugu, lanean jarraitu nahi dugu, baina egoera duin batean eta errespetuzko baldintzetan.

Bertako langileak*

* NOAUA! ko Ika-mika araudiaren arabera, "ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero".

Etiopiara ailegatu da

Usurbilgo elkartasun keinua

Ana Urdangarin eta Larraitz Izagirre herritarren eskutik ailegatu da Etiopiara, duela 18 urtetik bertan bizi eta haur behartsuen alde lanean diharduen Anjel Olaran Hernaniko Aita Zuriarengana, gure artean igaro den ekainean zabaldutako artelanen erakusketan jaso zen laguntza. Wukro izeneko zonaldean egon dira bi usurbildarrak, beraiek adierazi bezala, “maitasuna atez ate zabaltzen”. Hainbat lanetan, bertakoak laguntzen aritu ziren pasa den uztailan. Gure artera itzulita, bertara berriz joateko asmoa dute.

NOAUA! Bizi irauteko gabezi bat baino gehiago dituzte etiopiarrek. Adibidez...

Ana Urdangarin. Ur faltarekin bate-ra, elikagaiak eta osasuna. Asko ez dira iristen familia guztia mantentzera. Anjelen proiektua familia behartsuenei zuzendua dago. Lehentasunak zehazteko azterketa egiten dute. Gehienei janaria eta lehen mailako beharrei aurre egiteko diru kopuru bat ematen zaie. Ihesa ere oso zabaldua dago. Gehienek medikazioa behar dute. Anjel beti aritzen da lanean, falta zaien osasun zerbitzu aldetik gutxieneko horiek eduki ditzaten. Oso xumeak dira. Oherik ere ez dute. Esponjatzko “koltxoneta” batean bost pertsonak lo egiten dute, ahal duten moduan. Haurrak umezurtzak dira kasu askotan.

N. Aipatu gabeziei bertako klima eta egoera politikoa erantsi behar; lehortek eta gerrateak. Zein da une honetako egoera?

A. U. Gerra aldetik une honetan nahiko lasai dagoela dirudi. Ez dugu sumatu gatazka bizi bizian dagoenik. Baina urte askotako gerra izan da eta bertakoek ez dute ahazten. Gainera,



“ETIOPIAN, HAUR ASKOK EUREN GURASOAK GERRAN GALDU DITUZTE”.

haur askok euren gurasoak gerran galdu dituzte.

UMORE ONEAN

“Etiopian hurrekin kantari aritzen ginen. Euskal abesti pila bat ikasi dituzte”

N. Anjelek 18 urte daramatza bertan. Ingurune hark izan duen eboluzioari dagokionez, zer ikuspegi du berak?

A. U. Berak dio, okerrera doala egoera. Euren oinarritzko elikagaien prezioak hirukoiztu egin dira kasu batzuetan. Gauza gehienak han ereiten dira, baina betikoa gertatzen da. Prezioak atzerrian markatzen dituzte baina hirukoiztu egiten zaizkie gaiak eurei ailegatzen zaizkienerako.

N. Arrasto handia utzi du Anjelek lanean diharduen zonaldean.

A. U. Anjelen itzala handia da eta izango da. Bertan bizitzeak, horrek emango dio, ziur aurrera jarraitzeko

indarra. Beti umoretsu dago. Berak eskola du eta lanbide heziketako gunea eta lurra lantzeko eskola. Handik lanbide bat ikasita irteten dira. Azpiegitura handiak dira.

Larraitz Izagirre. 72 urte ditu eta sasoi... Indar handikoa da. Anjel oso maitagarria da, beti animuak ematen, hangoak laguntzen, haiekin hitz egiten...

N. Zuen egunerokoa nolakoa zen, eta nolakoa etiopiarrena?

L. I. Goizean, 6:30etan jaikitzen ginen. Hortik aurrera, lan desberdinetan jarduten genuen; zuhaitzak landatu edo ureztatzen, uraren kanalizazio lanetan... Anjelek 60 bat haur zituen eskola bat du. Goiz eta arratsalde klaseak izaten dituzte. Askotan klaseak bertako gaztetxoek ematen dituzte. Adibidez, 14 urteko neska bat haur txikien irakasle lanetan jarduten da. Gu ere han hurrekin kantari aritzen ginen. Euskal abesti pila bat ikasi dituzte. Haurrak txaboletan bizi dira. Neska gaztetxo batek adibidez, bost haur txikien ardura du. Diru kopuru bat jasotzen dute hilero. Laguntza

“Eskuzabalik hartzen zaituzte”

horrekin haien artean moldatzen dira. Elkarri laguntzen diote eta elkar izugarri maite dute. Oso arduratsuak dira. Ez dute ezer, baina duten gutxia ematen dute.

A. U. Odoleko anai arrebak bezala defendatzen dira. Bestalde, ohitura gisa, haientzat oso garrantzitsua da kafearen ordua, tertuliarako unea.

N. Anjelek laguntzaile gehiago izango ditu inguruan?

A. U. Beste lau apaiz daude. Ardura gehiena berak du, elizaren gainetik. Berak elkarre desberdinetako diru-sarrerak lortzen ditu. Elizaren oniritzia izan ez arren, berak aurrera egiten du. Gu bezala beste 24 boluntario aritu gara. Bakoitza proiektu batekin zetorren. Donostiako lagun bat adibidez, ur putzuak egiteko proiektuarekin. Telefonika-ko langile batzuk informatika klaseak ematera joan ziren... Une oro jendea dabil han.

I. L. Baita oftalmologoak ere. Egunero 15 ebakuntza egiten zituzten. Kontaktu asko ditu Anjelek, oso ezaguna da eta.

N. Bertakoek zer diote, bizi garen geure mundu honi buruz?

L. I. Iruditzen zaie, gu munduko herri aberatsenean bizi garela. Kristoren dirutza dugula, lan asko... Hona etorri nahi dutela diote, baina esaten diezu ez dela hain erraza. Desberdina da. Han egunean eguneko bizitzen dute. Han lasaia bizi dira, egunean eguneko salbatzen dute.

A. U. Beraiek uste dute hau paradisu dela, hemengoa izateagatik iruditzen zaie aberatsa zarela. Eta haiek ez dituzten mila aukera dituzula.

N. Zer esan dezakezue zuekin elkar bizi diren etiopiarrei buruz?

A. U. Beraien bizitza besteentzat ematera bideratua dago. Gizatasun handia dute, jada hemen sentitzen ez dena. Beraiei naturalki ateratzen zaizkie balore horiek. Eskuzabalik hartzen zaituzte.



“MAITASUNA EMATERA ZOAZ HAURREI, BAINA ZUK GEHIAGO JASOTZEN DUZU”.

L. I. Haurrak beti irribarre batekin, beti pozik daude. Kalera atera eta hogeitau haur elkartzen zitzaizkigun. Eskolarako bidea bakarrik sekula ez genuen egiten. Oso maitagarriak dira eta horrek izugarri asebetetzen zaitu.

N. Hartu emana mantentzen segitzeko asmoa duzue?

L. I. Argi dugu, berriro bertara goaz, haurrei hitz eman diegu. Agurra oso gogorra izan zen.

N. Aldi berean, bertara joan nahi lukeen horren erreferentzi bihurtu zaitezke?

L. I. Nahi duenak kontaktuan jar dadila gurekin. Laguntza behar da. Gauza bat guk kontatutakoa da, bestea bertan egon eta bizitzea, oso ondo sentitzen zara.

Gu hara maitasuna ematera joan gara; “maitasuna atez ate”. Maitasuna ematera zoaz haurrei, baina zuk gehiago jasotzen duzu.

Anjel Olan, Etiopiako “aingeruen” zaindaria

Etiopian daramatza 18 urteotan, eskola, lanbide heziketa eta lurra lantzeko gune bana sortu ditu Anjel Olanek. Egunez egun, behartsuenak osasun eta elikadura alorretan laguntzen jardun da. Jende asko erakarri du Etiopiar, bere proiektuak bultzatzera. Eta idazteko tartea ere izan du. Bere egitasmoen nondik norakoak, mundu honi buruz duen ikuspegia edota bertako haurren istorioak Olanek idatzitako liburu batean jasoak ditu jada: “Los ángeles de Wukro” izenekoan hain zuzen.



18 URTE DARAMATZA ETIOPIAN, ELKARTASUN PROIEKTUAK BIDERATZEN.

Udala, Kontseiluarekin lankidetzan

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak, hainbat udalekin lankidetzan hitzarmena sinatu du. Lehengo astean Donostian egindako ekitaldiaren bitartez, udalen inplikazioa erdietsi nahi da. Usurbilgoa izan da hitzarmen honekin bat egin duen udaletako bat.

Kontseiluaren eginkizuna, sortu zenetik hona, Euskal Herrian euskararen normalizazioa edo berreskurapen osoa lortzea dela aipatu zuen prentsaurrekoan Xabier Mendigurenek, Kontseiluko idazkari nagusiak.

Hizkuntza-politika egokia

Kontseiluaren lan ildoetako bat, hain juxtu, udalen hizkuntza-politikan eragitea da. Ildo horretan aritu da lanean azken urteotan eta hainbat ekarpen egin ditu. Besteak beste: udalen hizkuntza-politika neurgailu bat sortu eta 100 herritan hizkuntza-politika ebaluatu du, Akordio Soziopolitikoa osatzen duten alderdi eta sindikatuarekin adosturik, euskararen ordenantza eredugarriak arau-markoaren proposamena sortu du.

Orain sinatu den hitzarmenaren helburua herrietan hizkuntza-politika



DONOSTIAKO MIRAMAR JAUREGIAN SINATU ZEN HITZARMENA. ESKUBITARA, NEREA ERAUNTZETAMURGIL EUSKARA ZINEGOTZIA.

egokia gauzatzea da. Helburu hori komuna da bai Kontseiluarentzat eta baita hitzarmena sinatu duten udalarentzat ere.

Berdintasunerako Udal Plana diseinatzeko garaia iritsi da

Iazko udazkenean abiatu zen diagnosi prozesua amaituta, Berdintasunerako Udal Plana diseinatzea izango da, Elhuyar Aholkularitza Udalarekin batera elkarlanean aurrera ateratzen ari diren egitasmoaren hurrengo urratsa. Herritarren txanda da orain. Pasa den neguan bezala, herritarrei zuzendutako parte hartze prozesua abiatzera doa. Egunotan zehaztuko dituzte antolatu dituzten hiru bilkura irekien hitzorduak.

Eguneroko bizitzan emakume zein gizonezkoen aukera berdintasuna sustatu asmoz udal plana diseinatzeko lanetan murgilduta daude Udala eta Elhuyar Aholkularitza. Baina herritarren iritzia kontuan hartu nahi dute. Horregatik, hiru bilera irekiez osatutako parte hartze prozesua zabalduko dute laster. Elhuyar Aholkularitzatik ekitaldietara agertzeko gonbita luzatzen dute, “izan ere, herritar guztiek daukate zer esana; Usurbilen bizi direnek inork baino hobeto ezagutzen baitituzte beraien beharrak, herriko hutsune nagusiak eta hobetu beharrekoak”.

Iazko udazkenean diagnosi fasean, adin tarteka antolatu ziren bilkurak. Oraingoak aldiz, gaika. Egungo egoera zertan den erakusteko, egina dagoen diagnosiko emaitzak aurkeztuko dira. Jarraian, bilkurako parte hartzaileen artean, aurrera begira zer egin zehaztea da asmoa. Hona hemen hiru bilkuretan jorratuko diren gaiak:

1. KULTURA ETA KIROLA

-Herrian antolatzen diren ekitaldietan gizonezko eta emakumezkoek protagonismo bera izateko zer egin.

-Emakumeen parte hartzea bultzatu behar da?

-Ekintzak antolatzerakoan emakumeen interes eta beharrak kontuan hartzen dira?

2. HEZKUNTZA

-Nola hezi neska-mutilak berdintasunean?

3. ONGIZATEA

ETA GIZARTE ZERBITZUAK

-Zer hobetu emakume, etorkin, guraso bakar, adineko edota bazterketa egoeran dauden behar eta aukei erantzuteko?

Kultura Aholku

Batzordearen bilera

Asteazken honetan, Kultura Aholku Batzordearen bilera egitekoa zen udaletxean.

Batzar hau 2008an sortu zen. Aholku Batzarraren helburu nagusia Usurbilgo kultur elkarten arteko koordinazio eta komunikazioa bideratzea da. Datorren alean emango dugu bileraren berri.

Autorik gabeko eguna

Autorik Gabeko Eguna ez zen Aholkabearen pasa. Irailaren 22a da eguna, baina herrian ospakizunak irailaren 25ean egin ziren. Arratsalde partean, txokolatea banatu zuten Udarregiko ikasleek. Bi bizikleta ere zozketatu ziren.



ILARA LUZEA OSATU ZEN TXOKOLATEA HARTZEKO GARAIAN.

Aginagako oilasko biltzaileak, prest

Aginagan tradizio luzea du oilasko biltzera irteteko ohiturak. San Praixku hauetan ere ez du hutsik egingo.

Lehenbizi indarrak hartu, goizeko seiretan. Ordu erdian bapo gosalduta eta ibilaldiari ekiteko prest egon beharko dute oilasko biltzaileek larunbat honetan. Etxez etxeko buelta ordu dezentez egin ondoren, jateko ere bilduko dira. Aurten, oilasko biltzaileei lotutako eguna gauera arte luzatzeko asmoa dute antolatzaileek. Bazkaria izan ordez, afaritarako bilduko dira eta, Etxebesten.



AGINAGAN, BELAUNALDIZ BELAUNALDI TRANSMITITU DEN OHITURARI EUSTEN DIOTE. AURTENGO OILASKO BILTZAILE EGUNA, LARUNBAT HONETAN OSPATUKO DUTE.

Aingirari buruzko dokumental interesgarria

Egitarauak ekartzen ez badu ere, San Praixkuko Jai Batzordeak ikus-entzunezko interesgarri bat antolatu du. "Aingiraren bidaia" izena duen dokumentalean, espezie honek pairatzen duen egoera kritikoa aztertzen da. Jose Luis Castro eta Patrick Luzeux adituek egindako dokumental honek 52 minutuko iraupena du. Larunbat honetan, Aginagako ludotekan eskainiko da ikus-entzunezko hau, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

Eta besteak beste, aingiren bizirau-pena arriskuan jartzen dituzten faktoreak nabarmentzen dira. Adituez gain, arrantzaile gipuzkoarrek nahiz bizkaitarrek eta Aginagako angula industria-ko ordezkariak ere beren ikuspuntua adierazten dute ikus-entzunezko honetan.



AGINAGAKO LUDOTEKAN ESKAINIKO DA DOKUMENTALA, LARUNBATEAN 19:00ETAN.

Ludotekan emango da

Aginagako ludotekan ikus ahal izango dugun dokumental honek helburu hezitzailea du; informazio interesga-

ria modu argi eta atseginetan ematen baitu, irudi ederrak baliatuz. Urriaren 3an larunbata, arratsaldeko 19:00etan, Aginagako ludotekan.



Usurbil
Autoak, S.C.L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa,
Aitzearra kalea, 1.
20170 USURBIL
Faxa: 943 36 62 92

943 36 10 79



Beheko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

ALKORTA
AUTOZERBITZUA

Frutak
Barazkiak
Etxeko produktuak
Izoztuak

Aginagan, Hotzikara eragiten

San Praixkuei musika estilo gogorren doinupean ekingo zaie aurten. Eliza zaharreko atea zabalik egongo da urriaren 2an, kontzertu gauaz gozatu nahi duenarentzat. Odolaren Mintzoa eta 3gabe2 taldeekin batera joko dute iazko udan sortu zen Hotzikara herriko taldekoek ere. Harane futbol zelai ondoan duten lokalean harrapatu ditugu, entsegu saioetako baten amaieran.

NOAUA! Emanaldien lehen uda izan duzue aurtengoa. Zer moduz moldatu zarete?

Mikel Olasagasti. Gustura. Jendea motibatua agertu da, baita zalantzekin ere.

David Illarramendi. Guretzat publikoarekiko izan dugun kontaktua polita izan da. Lehen beste musika taldeetan parte hartutakoak izan arren, guretzat ere nobedadea zen.

Antton Aranburu. Jendea gogoarekin zegoen, jakinminenez ia zer ari ginen egiten. Orain arteko emanaldiek harrera beroa izan dute. Ia hurrengoek ere hala izaten jarraitzen duten.

N. Emanaldi horietako bat Txokoaldeko Akerra Gaztetxean eskaini zenuten. Baina gehiago ere izan dira?

D. I. Txokoalden, Atxegaldeko festetan eta Getarian.

N. Getariako kontzertuan herrikoetan baino lasaiago aritu zarete, edota etxean erosoago?

M. O. Herriko jendearekin konplitu egin behar da. Kanpoan hanka sartzeak onar ditzakezu.

Beñat Arteaga. Halere, Getarian zeuden guztiak usurbildarrak ziren. Beraz, etxean bezala.

A. A. Mendeku ItXua taldearekin batera eskaini genuen kontzertua. Mendeku eta gure jendearekin giroa sortu zen, etxean bezala.

N. Lehendik ere musika kontuetan ibiliak zarete. Talde desberdinetatik



TALDEKIDEAK: DAVID ILLARRAMENDI (AHOTSA), ANTTON ARANBURU (GITARRA), BEÑAT ARTEAGA (BAXUA) ETA MIKEL OLASAGASTI (BATERIA). ARGAZKIA: IBAI ARRIETA.

etorri izanak, musika estilo desberdinen nahasketa ere suposatu du Hotzikararentzat?

D. I. Talde hau sortzerako jada gutxi gorabehera argi genuen, zer egin nahi genuen. Musika estilo zerbait gogorra.

A. A. Zerbait desberdina. Musika estilo hau jotzen ez zuten taldeetatik gatoz. Bildu gara eta hau atera zaigu.

ESTILO BEREZIA

“Musika estilo hau ez da oso entzuna. Horregatik jendea harrituta geratzen da”

N. Ideia bat bazegoen eta hori gauzatzeko saiatu zaretela esan liteke?

M. O. Lehenik ni hasi nintzen halako zerbait egiteko ideiarekin. Illarra beti ibiltzen zen hemendik halako abestiak kantatzen. Zerbait egin behar genuela beti esaten genuen. Momentua ailegatu zen, Anttonekin hitz egin eta baietz. Hirurok hasi ginen.

A. A. Gitarra bakarrarekin geunden, baxu jolea falta zitzaigun. Beñati proposatu genion.

N. Taldeari musika estiloren baten zigiturik jar diezaiokezue?

A. A. Zaila da. Jendeak galdetzen digunean, gai hauetan adituak ez garen ez hitzik gabe geratzen gara. Dakienak “trash core” gisa etiketatu digu. Hala omen da, ez dakit. Halere hori esan duenak bi abesti entzunda bakarrik esan digu. Musika estilo hau ez da oso entzuna. Horregatik jendea harrituta geratzen da. Gehiengoa ez dago ohitua estilo horretara.

M. O. Barietatea dago, zaila da etiketatzea.

N. Futbol zelai ondoko lokaletan herriko musika talde gehiagorekin elkarbizi zarete. Gainerako taldeen aldetik aholkurik jaso edo eskatu izan duzue?

M. O. Batez ere Ixak eta Anderren partetik, lagun handiak gara. Iritziak behintzat badaude.

D. I. Kanpotik gauzak beste modu batean ikusten dira. Hau eginez gero, hura aldatuz gero... Horrek bururatu ez zaizun zerbait esanda, lagundu egiten dizu.

A. A. Gainerako taldeen babesa sentitu dugu.

“Epe luzera, diskoa kaleratzeko asmoa dugu”

N. Aginagan hurrengo emanaldia. Aurreratzerik bai zer eskainiko duzuen kontzertu horretan?

D. I. Showa, eta egurra.
M. O. Indarra.

N. Eliza Zaharra, leku berezia da askorentzat?

A. A. Kutsu ilun bat ematen dio. Hotzikara. Gustukoa dugu.

N. Aurrera begira jorratu nahiko zenuketean bidean pentsatzen duzue?

M. O. Abestiak sortu nahi ditugu eta kontzertuak eskaini. Herrian eta ia kanpoan gehiago mugitzen garen.

A. A. Aurrera begira, diskoren bat grabatzeko asmoa badugu, nahiz eta neurri xumean izan, azken finean, horrek guztiak dirua suposatzen du eta. Epe luzera begira, diskoa kaleratzeko asmoa badugu, baina etorriko da etorri behar badu.

Oraingoz ez behintzat.

N. Sarean zaudete. Abantaila izango da hasi berri duzuen bidearentzat?

A. A. Denek dute Myspace-a eta denak daude sarean. Horri esker, gure estiloko musika talde gehiago ezagutzen ditugu eta haiekin harremana dugu.

D. I. Bide ona da; kantak zabaltzeko, jendearentzat...

M.O. Grabatutako bi abesti bertan entzun daitezke.

N. Kantak sortu eta prestatzeko lekua izatea ere ezinbestekoa da zuentzat. Haranen ondo moldatzen zarete?

A. A. Beste herri askotan Udalak eskainitako doako aukera hau ez dute. Gu eskertuta gaude. Baina egun, bi lokal daude eta talde asko. Geroz eta gazte gehiago dago. Ez dago denentzat tokirik.



HOTZIKARAKOEK HARANEN
ENTSEATZEN DUTE. ARGAZKIA: IBAI ARRIETA.

Bi asteburutan ospatuko dira San Praixkuak

Urriak 1, osteguna

19:00 Pilota partidak. Ezinduen erakustaldia, Emakume pilotari erakustaldia, Aginagako VII. Txapelketako pala finala.

Urriak 2, ostirala

18:00 Jaian hasiera etxaferu eta buruhandiekin.
22:00 Aginagako VII. Txapelketako esku pilotako finalak.
00:00 Kontzertua Eliza zaharrean. Odolaren mintzoa, Hotzikara, 3gabe2.

Urriak 3, larunbata

Oilasko biltzaileen eguna

6:00 Oilasko biltzaileen gosaria.
6:30 Oilasko biltzaileen irteera.
16:30 Estropadak.
18:30 Gorritiren showa.
21:00 Oilasko biltzaileen afaria Etxebeste tabernan.
24:00 Laiotz taldearekin dantzaldia. Atsedendian: Maleta karrera.

Urriak 4, igandea

San Praixku eguna

9:00 Tiro platoa.
11:00 Meza nagusia bi bertsolariz alaitua. Ondoren, hamaiketako herriko jubilatuentzat Aginaga sagardotegian.
18:00 Aginaga eta oriotarren arteko lehia herri kirolean. Ondoren, sardin eta sagardo dastaketa. Aldi berean, XXVII. Toka Txapelketa.

Urriak 9, ostirala

Haurren eguna

10:00 Haurren jokoak.
13:00 Umeentzat bazkaria Arrate egoitzan. Bazkalostean, jokoen jarraipena eta sari banaketa.
17:00 Txan magoa. Ondoren, txokolatada denentzat eta buruhandiak.
19:30 “Mendizaleak aurrera...” Koke Lasa mendizalearen eskutik ikus-entzunezkoa ludotekan.
21:00 Kostillada eliza zaharrean.

23:00 Aloña eta Maitane trikitilarien saioa eliza zaharrean.

Urriak 10, larunbata

16:00 XXIX. Mus Txapelketa herrikoia (izen ematea 15:30ean).
18:00 Buruhandiak.
19:30 Bertso saioa: Amets Arzallus, Iker Zubeldia, Angel Mari Peñagarikano, losu Oiartzabal.
24:00 Abiba diskojaia.

Urriak 11, igandea

12:00 Landarbaso abesbatzaren kantaldia elizan.
13:00 Herri poteoa Kuxkuxtu txarangarekin.
14:00 Herri bazkaria.
18:00 Herri antzerkia.
24:00 Tximeleta taldearekin dantzaldia.
Atsedendian, BTK taldearen eskutik batukada.
Ondoren, DJ Būru eliza zaharrean eguna argitu arte.

Zinemaldian izan gara

Urtero bezala, Udarregi ikastolako Lehen Hezkuntzako ikasleak Donostiako belodromoan izan gara. Areto hau, 3.000 ikusle hartzeko tokia duen zinema-areto handian bihurtzen da. Aurten, pantaila erraldoian, "Ponyo" filma ikusteko aukera izan dugu. Filmaren zuzendaria Hayao Miyazaki japoniarra izan da eta marrazki bizidunak dira.

Sosuke, itsasora begira dagoen labar batean bizi da.

UR AZPIKO KONTUAK...

"Ponyo koloretako arrainak haur izan nahi du eta ihes egingo du"

Goiz batean, burua marmeladazko pote batean sartuta duen koloretako arrain batekin egingo du topo. Sosukek askatzen lagunduko dio eta elkarren arteko lilura sortuko da.



UDARREGI IKASTOLAKOAK URTERO JOATEN DIRA ZINEMALDIRA.

AURTEN, "PONYO" PELIKULA IKUSI DUTE.

Hala ere, arrainaren aitak, garai batean gizaki izan zen aztiak, berarekin itsasora itzultzera behartuko du. Ponyo koloretako arrainak haur izan nahi du eta ihes egingo du. Kaosa

nagusituko da eta Ponyoren ahizpak maremoto erraldoi bihurtuko dira Sosukeren itzulera eragiteko.

Ur azpiko munduaren eromenak Sosuke nahastuko du.

LH 5 eta 6ko ikasleen hainbat iritzi

"Nik nahiago ditut akziozko pelikulak"

"Asteazkenean, belodromoan pelikula bat ikusi nuen. Ez zitzaidan gustatu umeentzako zelako eta marrazki bizidunak zirelako. Nik nahiago ditut akziozko pelikulak eta beldurrezkoak. Baina garrantzitsuena da goiza oso ondo pasatu nuela. Autobusean adibidez, oso ondo pasatu genuen hitz egiten eta barrezka. Hala ere, gauzarik txarrena Eneko ez zela etorri gaixo zegoelako".

"Bukaera polita zen"

"Pelikula ez zait asko gustatu baina bukaera polita zen, itsasontziarena esan nahi dut. Bestela, aspergarria izan da. Itsasontziarena, abentura on bat ikusi dudalako gustatu zait".

"Polita"

"Polita. Uraren ingurukoa izan delako, abenturazkoa, eta jolasteko itsasontzia, magia handia bihurtu delako. Ponyo gizakia bihurtu da eta bere ahalmenak galtzen ditu".



"Marrazkiak, ondo eginak"

"Marrazkiak ondo eginak zeudela iruditu zait. Zatiren batean, barregarria izan da eta abenturazkoa ere. Baina galdera bat, nolatan eraldatzen da Ponyo eta bere ahizpak ez?".

Igande honetan jokatu da Endika Abril txapelketako finala

Igande honetan, eguerdiko 11:00etatik aurrera, Endika Abril errebote txapelketako finala jokatu da Zubietan. Ustaritze eta Oiartzungo errebote taldeak izan dira sailkapen fasean ondoen aritu direnak eta, horri esker, iritsi dira igande honetako finalera.

